



119/2013 Ebazpena, 2013ko martxoaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko agintzen dira aldi baterako kontrataziorako eguneratutako zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan (2011ko aldi baterako kontratazio zerrendak), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitu ziren kategorietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren hainbat Ebazpenen bidez -2012ko ekainaren 25eko 490/2012 Ebazpena, 2012ko urriaren 30eko 685/2012 Ebazpena, 2012ko azaroaren 19ko 703/2012 Ebazpena eta 2012ko azaroaren 29ko 720/2012 Ebazpena- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratu ziren aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan (aldi baterako kontrataziorako 2011ko zerrendak), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitu ziren kategorietan.


2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 4. atalaren arabera, kontratazio-zerrendak egin ostean, eguneratu egin behar dira, esperientziari eta euskerari dagokienez, Erabaki honen 10.4 atalean aurreikusitakoari jarraiturik. Hori dela-eta,

EBATZI DUT:

Lehena.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko agintzea 2011ko aldi baterako kontrataziorako eguneratutako 1 lehentasuneko zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitu ziren kategorietan.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 20a.



Iz.: José María Armentia Macazaga
OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO